



EIO25 PROIEKTUAREN AURKEZPENA

Lerro hauetatik, ikasturte honetarako programatu dugun EIO25 proiektuaren berri eman nahi dizuegu. Abentura ederra dugu aurrean, eta guztion laguntza beharko dugu arrakasta handia izan dezan.

Berrikuntza eta plater nagusi gisa, dagoeneko iragarri dezakegu aurten EIOk hiru kontzertutan parte hartuko duela Euskadiko Orkestrarekin batera. Hau ez da kolaborazio xume bat izango, hiru kontzertu izango dira batera, hau da, bi orkestrak nahastuta, ikasleak eta profesionalak denak nahastuta, eszenatokian 100 musikari baino gehiago bilduko dituen ikuskizun batean.

EIOren talde koordinatzailetik oso ilusionatuta gaude ideia horrekin, ziur baikaude esperientzia paregabea eta ikusgarria izango dela gure ikasle guztientzat.

Jarraian, datu interesgarriak uzten dizkizuegu zuen irakasleen artean zabal dezazuen, orain arte dugun informazioarekin:

EIO25

Topaketaren data: Apirilaren 19tik 25era

Entzunaldien datak: Otsailak 7-8-9

Musika zuzendaria: Unai Urrecho

Kontzertu-programa:

1. zatia:

Finlandia J.Sibelius

Nimrod (Enigma eta Aldakuntzak) E.Elgar

Principe Igor A. Borodin

2. zatia:

2. Dantzaldia G.Marquez

1812 Overture P.Tchaikovsky

EIOtxiki25

Topaketaren data: Ekainaren 21etik 27ra

Entzunaldien datak: Martxoak 21-22-23

Programa: Oraindik zehazteke